# **PRENTSA OHARRA:**
ERAKUSKETA

# **NOTA DE PRENSA:**
EXPOSICIÓN



**URRIAREN 22AN EUSKAL HERRIA MUSEOAK "EMAKUMEA ETA EUSKAL PILOTA. MUJER Y PELOTA VASCA" ERAKUSKETA INAUGURATUKO DU.**

---

*2013/10/22 Euskal Herria Museoa (Gernika-Lumo)*

Euskal Herria Museoak "Emakumea eta Euskal Pilota. Mujeres y Pelota Vasca" erakusketa aurkezten du. Honekin, emakumeak euskal pilotan izan duen presentzia gogoan izan nahi da eta merezitako omenaldi bat egin bere lanari.

Antzinatik jokatu da pilotan, hainbat jokamoldetan, munduan barrena, eta jokoak Euskal Herrian lortu du osperik handiena. Sortu zenetik, gizonarekin lotuta egon da eta, hortaz, pilotalekuak gizonezkoen lekuak izan ohi dira beti. Hala eta guztiz ere, emakumeek ere hartu dute parte pilota jokoan aspaldidanik, eta, hain zuzen ere, erraketa jokoan espezializatu ziren eta lortu zituzten lorpen handienak. Erraketista hauek izan ziren emakumezko kirolarien artean lehen profesionalak.

Erakusketa bost ataletan banatuta dago. Atal bakoitzean tresna eta testigantza ezberdinen bidez, ahaztutako erraketisten presentzia gogora ekarri nahi da XX. mendeko Mundu mailako kantxetan.

**SAKEA:** Erraketa jokoak hirurogei urte baino gehiagoz (1917-1980) iraun zuen Espainian eta Ameriketan. Hasiera batean berrikuntza nabarmenak sartu ziren erraketa jokoaren jokalekuetan eta erremintetan. Tenis-piloten ordez larruzkoak erabiltzen hasi ziren, esku pilotako ohiko pilotak baino txikiagoak zirenak, hots, 50 eta 70 gramo artekoak. Aldaketa hura zela eta, tenis-erraketa baino erraketa sendoagoak eta luzeagoak erabili behar izan ziren eta eraztuna estutu egin zen. Denboraren poderioz jokalarien janzkeran gertatu ziren aldaketa nagusienak, batez ere gonen luzeran. 20. eta 30. hamarkadetan bernetaraino iristen ziren, baina 40. hamarkadan, Moscardó jeneralak orkatilaraino luzatzeko agindu zuen, eta luzera hark kirola egitea zailago bilakatu zuen. 50. hamarkadan belaunetaraino iristen ziren eta, harrezkeroztik, gutxika-gutxika moztuz joan ziren, jokoa arinagoa eta dinamikoagoa izan zedin. Erakusketa honetarako Mercedes de Miguel diseinatzailearen partaidetza izan dugu, zapi iruditan erraketisten janzkeraren bilakaera kronologikoa bere erara aurkeztu duelarik.

**TANTO KOPURUA:** Pilotalekuetako kudeatzaileek pilotari-talde bikainak biltzeak arrakasta itzela eman zion erraketa jokoari. Emakume gazte gehienak euskal pilotan tradiziorik handiena zuten herrietan biltzen ziren; hala ere, euskal pilotalekuetan jokamolde hura ez zen asko jokatzen. Jokalari asko nabarmendu ziren eta asko gogora ekarri behar ditugu: Eugenia Iriondo "Eibarresa" edo "La Bolche"; María Antonia Uzcundu "Txikita de Anoeta"; Agustina Otaola; Eladia Altuna "Irura"; Mª Luisa Alberdi; María Carmen Lasagabaster "Amaia"; Gloria Agirre "Txikita de Aizarna"; Lucia Areitoaurtenea; Beraza ahizpak (Julita, Mari eta Milagros); Conchita Bustindui, Olga Cazalis; María Luisa Senar; Rosa Soroa; Miren Uzkundum "Asteasu"; Justina Arenaza

"Vasquita I" eta bere ahizpa Maria "Vasquita II". Euskal erraketistak onenak eta ugarienak izan baziren ere, beste toki batzuetako jokalariak haiekin aritu ziren: Valentzia, Logroño, Madril, Bartzelona edo Mexiko.

**KANTXA:** XX. mendeko lehen urteetan zabaldu ziren pilotaleku gehienak erraketa jokoan jokatzeko diseinatu edo moldatu ziren: kantxaren luzera hogeita hamar metro ingurukoa zen, jokoa azkarragoa eta ikusgarriagoa izan zedin. Erraketistentzako lehen pilotalekua Madrilen zabaldu zen, 1917an, Cedaceros kalean, hain zuzen. Madrilen egon ziren erraketazale gehien eta bertan zabaldu ziren pilotaleku gehien; ondoren, Bartzelonan. Euskal Herrian Bilboko Euzkel-Jai eta Donostiako Gros pilotalekuetan bakarrik jokatu zen erraketa jokoan. Ameriketan jokoak izugarrizko arrakasta izan zuen eta pilotaleku askotan, hala nola, Kubako La Habana-Madrid edo Mexikoko Metropolitano pilotalekuetan jarraitzaile sutsu ugari izan zituen.

**KONTRAKANTXA:** Erraketa jokoak, beste kirol batzuek bezala, kultura nabarmena sortu zuen inguruan. Garaiko egunkariek emakume erraketisten entzutea eta abilezia isladatu zuten, baita El Pelotari aldizkariak ere. Literaturak, zinemak edo telebistak ere jaso zuten erraketista haienganako eta haien munduarenganako interesa, esaterako, Luis Antonio de Vega Rubioren "Chiquita de Bilbao" eleberriak, Julio Salvadorek 1950ean zuzendu zuen zinema beltzeko "Apartado de correos 1001" filmak edo Carmen Sarmiento kazetariak 1978an egin zuen "El ocaso de las raquetistas" dokumentalak. Baita artista plastikoek ere, esaterako, David Álvarez Flores irudigile tolosarra (1900-1940) arduratu zen erraketistek jokatzen zituzten kiniela-txartelen diseinuaz.

**HEMEN ETA ORAIN:** 1980ko uztailaren 17an jokatu zen azken erraketa-partida Madrid pilotalekuan. Harrezkeroztik, urteak joan ahala, pilota-jokamolde hura eta haren protagonistak, erraketistak, pixkanaka desagertuz joan ziren, ahaztu ziren arte. Hala ere, emakumeak pilotan (zesta-puntan, frontenisen…) jokatzen jarraitu du, emakume-jokalarien ehunekoa gizonena baino askoz txikiagoa bada ere. Duela urte batzuez geroztik, Espainiako Pilota Federazioa (FEP) eta gainerako autonomia-federazioak buru-belarri ari dira emakumearen eta pilotaren arteko oztopoak desagerrarazteko. 2004-05 denboraldian, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak "Emakumea Pilotari" egitasmoari ekin zion.

Erakusketa honetako objektuen artean honako hauek nabarmendu ditzakegu: pilotak; pilotak konpontzeko prentsa bat; erraketisten jantziak eta Mercedes de Miguelek egindako zirriborroak; argazkiak; hitzarmenak; federazio-fitxak; kiniela txartelak; garaikurrak eta oroitzapen plakak; pilotalekuetako egitarauak; kromo-album bat; eleberri bat; prentsa artikuluak …

Erakusketa ikus-entzunezko bik eta ukitzeko pantaila batek osotzen dute. Hauen bitartez, gaur egun arte erraketisten inguruan bildu den ia dokumentazio guztia ikus daiteke. Horregatik, esan dezakegu erakusketa hau emakumeak Mundu mailako euskal pilotan

izan duen papera ikertzeko lan interesgarria izan dela. Erakusketa honetarako erabili diren material guztiak dokumentazio eta museografi fondo batean gordeko dira Gernikako Euskal Herria Museoan eta ikertzaileen eskura izango dira nahi izanez gero etorkizunean gai honi buruzko lanak egiteko.

Erakusketa hau ibiltaria izango da, beraz, interesa agertzen duten udalerriek BizkaiKOArekin kontaktuan jarri beharko dute.

12€tan dago salgai erakusketa honetako katalogoa.

ERAKUSKETAREKIN LOTURIKO BESTE EKINTZA BATZUK

**Filme proiekzioa**
Titulua: "Apartado de correos 1001". Julio Salvador (dir.), 1950
Eguna: 2014/02/13 (osteguna)
Ordua: 19:00
Lekua: Euskal Herria Museoa (Gernika)

**Hitzaldia**
Titulua: "Mujer y punto. Pelota"
Hizlaria: Arantxa Pereda (erakusketako komisarioa)
Eguna: 2014/03/08 (larunbata)
Ordua: 19:30
Lekua: Euskal Herria Museoa (Gernika)

**"Emakumeak eta Kirola" mahai ingurua**
2014ean (eguna zehazteko)
Lekua: Euskal Herria Museoa (Gernika)

**Bisita gidatuak eta Tailerrak**

MUSEOKO INFORMAZIO OROKORRA

**Ordutegia:**
Asteartetik larunbatera: 10:00 - 14:00 eta 16:00 - 19:00.
Igandeak: 10:30 - 14:30.
Jaiegunak: 10:30 - 14:30 eta 16:00 - 19:30.
Astelehena: Itxita, urriko azken astelehena izan ezik.

**Salneurriak:**
Normala: 3 €
Murriztua: 1,50 €
Larunbatak: DOHAIN

**EL 22 DE OCTUBRE EL MUSEO EUSKAL HERRIA INAUGURA LA EXPOSICIÓN "EMAKUMEA ETA EUSKAL PILOTA. MUJER Y PELOTA VASCA"**

*22/10/2013 Euskal Herria Museoa (Gernika-Lumo)*

El Museo Euskal Herria presenta la exposición "Emakumea eta Euskal Pilota. Mujeres y Pelota Vasca" con la que pretende repensar la presencia de la mujer en la pelota vasca y ofrecer un merecido reconocimiento a su labor.

El juego de la pelota se ha practicado a nivel mundial en las más variadas modalidades, siendo en Euskal Herria donde ha adquirido una mayor notoriedad. Desde sus orígenes, este deporte ha estado ligado al hombre, sin embargo, las mujeres también han participado del juego de la pelota desde épocas remotas con diferentes funciones, y fue la raqueta la modalidad en la que se especializaron y con la que consiguieron sus mayores logros. Fueron estas raquetistas las primeras profesionales en el deporte femenino.

La exposición se divide en cinco secciones en las que a través de diferentes materiales y testimonios se ha pretendido reconstruir la olvidada presencia de las raquetistas en las canchas mundiales a lo largo del siglo XX.

**SAKE:** El juego de la raqueta estuvo vigente durante más de sesenta años (1917-1980) en España y América. Quien hizo posible su éxito y expansión al otro lado del Atlántico, fue Ildefonso Anabitarte (1878-1937), afamado puntista y empresario de los frontones más relevantes durante la primera mitad del siglo XX. Este empresario introdujo importantes innovaciones en las canchas y en las herramientas del juego de la raqueta. Las pelotas de tenis fueron sustituidas por otras de cuero, más pequeñas que las habituales de mano, con un peso aproximado entre 50 y 70 gramos. Este cambio obligó a utilizar unas raquetas más robustas y largas que las de tenis y con el aro más estrecho. También se produjeron cambios en la vestimenta, marcados por la largura de las faldas. Llegaron hasta la pantorrilla en los años 20 y 30, pero en los 40, el general Moscardó ordenó alargarlas hasta el tobillo, lo que dificultaba la práctica deportiva. Vuelven a la rodilla en los años 50 y, a partir de este momento, se irán acortando gradualmente para desarrollar un juego más rápido y dinámico. Para esta exposición se ha contado con la colaboración de la diseñadora Mercedes de Miguel que ha desarrollado su particular visión de la evolución cronológica en la indumentaria de las raquetistas a través de siete dibujos.

**TANTEO:** El éxito de la raqueta se debió a los magníficos cuadros de pelotaris que los gerentes de los frontones consiguieron reunir para este fin. La mayor parte de estas jóvenes eran reclutadas en las localidades vascas con mayor tradición en el juego de la pelota, sin embargo fue una modalidad con escasa práctica en los frontones vascos. Muchas fueron las figuras que destacaron y muchas, también, las que merecen ser recordadas: Eugenia Iriondo "Eibarresa" o "La Bolche"; María Antonia Uzcundu "Txikita

de Anoeta"; Agustina Otaola; Eladia Altuna "Irura"; Mª Luisa Alberdi; María Carmen Lasagabaster "Amaia"; Gloria Agirre "Txikita de Aizarna"; Lucia Areitoaurtenea; las hermanas Beraza (Julita, Mari y Milagros); Conchita Bustindui, Olga Cazalis; María Luisa Senar; Rosa Soroa; Miren Uzkundum "Asteasu"; Justina Arenaza "Vasquita I" y su hermana María "Vasquita II". Aunque fueron las raquetistas vascas las mejores y mayores en número, con ellas compartieron cancha otras raquetistas procedentes de Valencia, Logroño, Madrid, Barcelona o México.

**KANTXA:** Gran parte de los frontones que se abrieron en los primeros años del siglo XX, fueron diseñados o adaptados para el juego de la raqueta con una cancha cuya longitud rondaba los treinta metros, permitiendo el desarrollo de un juego más rápido y espectacular. El primer frontón para raquetistas se inauguró en Madrid en 1917, en la calle Cedaceros. Esta fue la ciudad con mayor afición por la raqueta y donde más frontones se inauguraron, seguida de Barcelona. En Euskal Herria los dos únicos frontones en los que se jugó a raqueta fueron el Euzkel-Jai en Bilbao y el frontón Gros en Donostia/San Sebastián. En América el juego de la raqueta tuvo un desbordante éxito con multitud de seguidores en frontones como el Habana-Madrid de Cuba o el Metropolitano de México.

**KONTRAKANTXA:** El juego de la raqueta, al igual que otras disciplinas deportivas, generó una importante cultura en torno a su práctica. La popularidad y destreza de las raquetistas fue reflejada en la prensa del momento, así en la revista "El Pelotari". La literatura, el cine o la televisión también participaron del interés hacia las raquetistas y su mundo en novelas como "Chiquita de Bilbao" de Luis Antonio de Vega Rubio, películas de cine negro como "Apartado de correos 1001" dirigida por Julio Salvador en 1950 o el documental "El ocaso de las raquetistas" que la periodista Carmen Sarmiento realizó en 1978. También artistas plásticos, como el ilustrador tolosarra David Álvarez Flores (1900-1940), se encargaron del diseño de los boletos para las quinielas jugadas por las raquetistas.

**HEMEN ETA ORAIN:** El 17 de julio de 1980 se juega el último partido de raqueta en el frontón Madrid. A partir de este momento esta modalidad y sus protagonistas, las raquetistas, irán desapareciendo hasta, prácticamente, caer en el olvido. Sin embargo, la mujer ha seguido practicando el juego de la pelota, aunque en un porcentaje muy inferior al de los hombres, en pala, cesta-punta, frontenis… Desde hace algunos años la Federación Española de Pelota (FEP), y el resto de sus Federaciones Autonómicas, trabajan para hacer desaparecer las barreras existentes entre la mujer y el deporte de la pelota. En la temporada 2004-05 la Federación Gipuzkoana de Pelota Vasca inició el proyecto "Emakumea Pilotari".

Entre los objetos presentes en esta exposición podemos destacar: raquetas; pelotas; una prensa para pelotas; vestimentas de las raquetistas y bocetos de Mercedes de Miguel; fotografías; contratos; fichas federativas; quinielas; trofeos y placas conmemorativas; programas de los frontones; álbum de cromos; una novela; artículos de prensa…

Completan la exposición dos audiovisuales y una pantalla táctil a través de los cuales se podrá acceder a, prácticamente, la totalidad de la documentación que sobre las

raquetistas se han recuperado hasta la actualidad. No en vano esta exposición supone un interesante trabajo de investigación sobre el papel que la mujer ha desarrollado en el ámbito de la Pelota Vasca a nivel mundial. Todos los materiales utilizados en la exposición formarán parte de un fondo documental y museográfico que permanecerán en el Museo Euskal Herria de Gernika y que estará a disposición de los investigadores para futuros estudios.

Esta muestra será itinerante, por lo tanto, todos aquellos municipios que estén interesados tendrán que ponerse en contacto con BizkaiKOA.

La exposición cuenta con un catálogo a la venta por 12€.

ACTIVIDADES RELACIONADAS CON LA EXPOSICIÓN

**Proyección cinematográfica**
Título: "Apartado de correos 1001". Julio Salvador (dir.), 1950
Día: 13/02/2014 (jueves)
Hora: 19:00
Lugar: Euskal Herria Museoa (Gernika)

**Conferencia**
Título: "Mujer y punto. Pelota"
Conferenciante: Arantxa Pereda (cocomisaria de la exposición)
Día: 08/03/2014 (sábado)
Hora: 19:30
Lugar: Euskal Herria Museoa (Gernika)

**Mesa redonda "Mujer y Deporte"**
Fechas a determinar en 2014
Lugar: Euskal Herria Museoa (Gernika)

**Visita guiadas y Talleres**

INFORMACIÓN GENERAL DEL MUSEO

**Horario:**
Martes a sábado: 10:00 a 14:00 y 16:00 a 19:00.
Domingos: 10:30 a 14:30.
Festivos: 10:30 a 14:30 y 16:00 a 19:30.
Lunes: Cerrado, excepto último lunes de octubre.

**Tarifas:**
Normal: 3 €
Reducida: 1,50 €
Sábados: GRATIS











México 1959



# FRONTON TENERIFE

## CAMPEONATO INDIVIDUAL DE RAQUETA

### PELOTARIS QUE TOMARÁN PARTE EN ESTE INTERESANTE TORNEO

MARUCHI: Formidable delantera, favorita destacada de este torneo-campeonato por su especiales condiciones para partidos solitarios.

VASQUITA: Campeona de Cataluña de segunda categoría en partidos individuales. Su juego enrevesado puede dar la sorpresa...

MAITE: Fogosa y peligrosa delantera, hoy en día en la plenitud de juego. ¿Será capaz Maite de conseguir el título? De esta pelotari todo se puede esperar.

ARANE II: De pegada terrible, que con la Maruchi, a juicio de los entendidos forma el duo destacado para salir vencedora de este torneo-campeonato. Vamos a ver si Juanita Arrillaga confirma las fundadas esperanzas que en ella tienen puestas sus muchos admiradores.

## Torneo-campeonato de raqueta

Esta emocionante pugna campeonil de raqueta la jugarán seis destacadas pelotaris que tienen méritos sobrados para ser designadas con vistas a la disputa de esta sensacional competición.

Jugarán todas contra todas, otorgándose a la ganonciosa de cada partido un punto. Los saques serán fijados por el señor Intendente. La que obtenga mayor puntuación a la terminación de este torneo-campeonato, será designada vencedora manomanista del cuadro del Frontón Tenerife, otorgándosele un magnífico trofeo que confirme este honroso título.

Caso que hubiese empate a puntos entre dos o más pelotaris, será designada vencedora la que haya conseguido mejor tanteo en todos los encuentros. Si son dos las que quedan en igualdad de puntuación, ventilarán el título a base de la que ostente mejor clasificación en los partidos jugados entre ambas pelotaris.

Este emocionante torneo-campeonato dará principio el día 7 del corriente mes, jugándose los partidos previo sorteo hecho con antelación en las fechas comprendidas en los días martes, jueves y domingos. No obstante, la empresa se reserva el derecho de alterar las fechas de los partidos si las circunstancias así lo requieren.

Este torneo-campeonato será regido por las cláusulas corrientes que tienen estipuladas la Federación de Pelota Vasca para estos casos.

LA EMPRESA

EMILITA: Peligrosa delantera por su juego intuitivo, de quien se espera una brillante actuación en este emocionante torneo.

MILAGROS I: Considerada como la jugadora más completa del cuadro de raquetistas del Frontón Tenerife. Milagros I tiene sus aspiraciones y la afición cree con justísima razón.